

Dana prest Zeanurin egingo dan Gorbeia Suzien lasterketarako

11. orrialdea

Txotxongiloak auzolanean

Maurizia Aldeiturriaga Zeberioko panderojolea, Leon Bilbao Arteako albokaria eta Fasio Arandia Igorreko trikitilariaren irudiakaz hiru metroko txotxongiloak egiteko tailerra antolatu dabe Areatzan zemendiaren 1etik 10era. Frantziako *Les grandes personnes* txotxongilo egile taldeak emongo dau tailerra doban eta tailer honen emoitza izango dira txotxongilo handi honeek. 12. orrialdea



Igorreko Mugari Bira, Artean BTT eta Mendizale Eguna

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

194

2013ko urri bigarrenaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Herri antolamentu barria Zeberion

Herria antolatzeko Plan Orokor barria egiten hasi dira Zeberion. Izan be, gaur egun indarrean dagoana 1988koa da eta bai herria bai bertako bizimodua asko aldatu dira 25 urte honeetan.

Plan Orokor honetan hurrengo urteetan herria zelangoa izango dan eta herritarrek zelan eta non biziko diran ebatziko da.

Herritarren parte hartzeagaz egingo da Plana eta horretarako lan saio batzuk antolatu ditue lehenengo fasean, herria ze egoeratan dagoan ikusteko. Saiok hildaren 24an, zemendiaren 9an eta zemendiaren 25etik 28ra izango dira. Lehenengoan parte hartze prozesuaren aurkezpena eta azterketea egingo da; bigarreanean, herriaren "dekonstrukzioa eta irudikapena" eta hirugarreanean haur eta umeen Zeberio landuko da. Honen ostean, bigarren fasean be beste lan saio batzuk antolatuko dira Plan Orokoraren helburuak zehazteko eta hirugarren fasean, behin hausnarketea, azterketea eta proposamen prozesua eginda, herri konsulta bategaz amaituko da lan guztia. 5. orrialdea



Zeberio.

ARRATIA

Itzalaldirako deialdia egin dabe hildaren 30erako

Hildaren 30ean argiak amatatzeko deialdia egin dau Arratian lan eta bizi Plataformeak Arratiak bizi dauan desindustrializazio prozesuaren kontra protesta egiteko. Eskualdean lan eta bizi egin ahal izateko plataformakoak mobilizazio gehiago egin gura dabez, tartean udal guztietan mozinoak sartu, prentsurrean adierazo ebenaren arabera. 7. orrialdea

ARRATIA

Oreinen marruak entzun ziran Gorbealara egindako bisitan

Saldropotik Arralderaino, ordubete inguruko ibilaldian 25 persona inguru joan ziran hildaren 5ean Gorbeian bizi diranen oreinen marruak entzuteru. Udagoienean orein arrak burrukak egin eta soinu gogor bat egiten dabe, marrua. Gorbeialdeko Parketxeak antolatutako urtekera horretan, ezin izan zituen oreinak ikusi, baina euren marruak entzun bai. 8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Mankomunidadeak 600 konpostagailu bananduko ditu

Arratiako Udalen Mankomunidadeak materia organikoaren birziklapena sustatzeko asmoz, 360 litroko 600 konpostagailu bananduko ditu etxean konposta egin gura daben arratiarren artean. Etxeak ortua edo lorategia euki behar dau eta interesa daukienak ikastaro bat egin behar izango dabe konposta egiten ikasteko.

Edukiontzia marroiaren erabilpena bultzatzeko be kanpaina bat ipini dau martxan Mankomunidadeak. 5. orrialdea

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOIAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 · Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseakin.com



IGTIE

ALKARTASUNA ERALDAKETA SOZIALAREN GILTZEA

Arratiako baserritar agroekologikoen egitasmoa ugaria eta zabal subertatu da gure ibilbide laburrean (urte bete t'erdia daroagu beharrean). Lehenengo sektorea transformatea zan gure helburua, nekazaritza iraunkorra jorratuz, baina bidean beste erronka batzuk topatu doguz: herrigintza, auzolana, elikadura burujabetza, nazino eraikuntza... Honetan be

guregana etorri dira Erriberako nekazariak, eskeintza erakargarri on batez: Nafarroa hegoaldeko eremu ez euskalduneko euskalgintzeari bultzada ekonomikoa emotea. Horretarako, hango produktuak Euskal Herrian zabalduaz, Arratian be bai, etekin ekonomikoaren zati bat zonalde horretako euskalgintzara bideratuko da.

Zelan? 50 euroko saskia eskuratu (orioa, piparrak, zainzuriak, orburuak, kardoak, potxak, borraja, pikillo saltsa...). Zemendian lehenengo hiru asteetan saski hau eskatu daiteke eta zemendia amaitukeran jasoko dau eskatzaileak. Elikagai batzuk ekologikoak dira, beste batzuk ekoizpen konbentzionalekoak, baina danak kalidade onekoak.

Kontaktua: Igtieko edozein baserritarren bidez edota telefono honeetara deituta: 629 990 142 (Sonia), 629 349 376(Xiber). Informazio gehiago:

<http://www.youtube.com/watch?v=wJajULXwXDQ>

<http://www.youtube.com/watch?v=OUzWdNwPb5E>



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urri bigarrenaren 14tik 20ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 21etik 27ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri big. 28tik zemendiaren 3ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau

Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ana Aldekoa, Ane Amuriza, Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Areatza, Euskal Jaia, 2013ko urri bigarrenak 5

Antolatzeke Batzordearen partez, eskerrik beroenak:

Urtean zehar, batzarretan programea sortzean parte hartu dabena guztiai.

Kartel egileari: Ibai Milikua.

Argazkilariai: Belen Lopez eta Martin Sagarna. Bideo grabaketara: Jose Angel Rebolledo.

Ezkontzako bertsoak idatzi dituan Igor Meñikari.

Areatzako txistulari diran Tamara, Aintzira, Argizka, Ane eta Eran-dioko Albertori.

Musika eskolako trikitilari, albokari eta panderojoleai.

Montaje lanean ibili diran Udaleko langileai.

Euskal Ezkontzaren antzezlanaren egin daben billaroztarrai:

Ezkongaiak: Jaime Atxa eta Olatz Agirremota.

Senargaiaren familia: Klara Astondoa, Carlos Pelaz, Aizea Cas-trillo.

Emaztegaiaren gurasoak: Amaia Etxezarraga, Javier Elexpuru.

Ameriketako izeko-osabak: Susana Martin eta Rafa Garibi.

Notarioa: Luis Carlos Abeal.

Alkatea: Edorta Bilbao.

Abadea: Jorge Trueba.

Arratiako koruari.

Areatzako jantza taldeari.

Txokolatea eta anisa zerbitzatzan ibili ziranai: Abel, Ziortza, Tere eta Amaia.

Plazako bodegillan lanean ibili zan taldeari: Basterra, Garbiñe, Gemma, Jesus, Tere, Jota, Lupe, Unai, Jose eta Petri.

Taloak egiten ibili zan andra taldeari: Karmentxu, Bego, Argi, Sara, Begoña, Miren, M^a Carmen, Marian, M^a Jesus eta Miren.

Berakatz-zopea egin ebenai: Jose Angel eta Marian.

Azokan parte hartu eben billaroztarrai: Gerardo Lapatza, Aitor Egileor, Urien, M^a Fernanda, Arantxi, Antonio, Olga, Areatzako Bai-nuetxea.

Eskulan taldeari: Pili, M^a Carmen eta Natalia.

Arratiatik etorritako beste ekoizle eta artisauai, eta bereziki Arratiako IGITIE alkarteari. Baita Ekin Harriari eta Institutuko irakasleai.

Bazkaria antolatu eta zerbitzatu eban taldeari: Damian, Ainhoa, Bego, Itxaso, Idoia, Ane, Gemma, Lupe, Virtu, Emi, Sorkunde, Ainara eta Tere.

Era batean edo bestean parte hartu dozuen billaroztar guztiai eskerrik asko.

Zorionak Aretza eta Gora Euskal Jaia!

EUSKAL JAIAREN BATZORDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrikut eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Kantal



Kale edo kaleko etxe baten eskineari edo muturrari zelan deitu? Eskinea, kantoia? Batuaz, ertza eta izkina berbak erabilten dira, baina guk Arratian badogu berba bat, gero eta gitxiago entzuten dana: kantala (kantála, agoskatuta). Adibidez, "gure etxearen kantalean parau da gizona diru eske" edo "kantaleko baztarrean ostondu zan". Hain zabal dabilen kale kantoi-ren ordez zergaitik ez kale kantala promozionau?

ERETXIA

Egin daigun itsasoa



IKER USABIAGA SORREGIETA

Tantaz-tanta, itsasoa gara ekimeneko kidea

Lehenik eta behin mosu eta besarkada ezti bat Herrirako 18 lagunai. Poza askatuak izan diralako. Urri lehenengo atzenengo egunean iraganekoak genduzan sentipenak sentidu genduzan barriro be. Kezkea, zelango ondorioak izango zituan zentzubako eta harroa subertatzen dagoan bakezkoa eta publikoa izan dan jardunbide baten hamaikagarraren kriminalizazio saiakerearen aurrean. Orain dala urte bi, Donostiako Kurasaalean jaiotako mobimentu barriaren 3 zutabe nagusiak, preso gaixoen askatasuna, bizi arteko zigorrak amaitutea eta sakabanaketa politikagaz bukatzea izan dira. Hau da, salbuespenezko egoerakaz behin betiko amaitzea, mendekuzko espetze politika baztertuz. Jardunbide guztiz zilegia eta bake-tsua, eratze-dokumentuan azaldu legez.

Baina estatu espainiarrak argi erakutsi deusku barriro be zein parametrotan mobiduten dan. Herrirak ezin eban publiko, ezta plural izaten jarraitu. Min gehiegi egiten deutso estatuari oinarriko giza eskubideen inguruan, etenbarik agerian ixten, zelango gabezia demokratikoa daukan. Nahikoa dala esan dau eta iraganeko egoerataraz itzuli daikela gura dauanean. Beste eragile batzuentzako oharra be izan da. Estadia atzenean mobidu da, bai, baina kontrako norabidean.

Helburua garbia izan da, Herrira mobimentua eta ondorioz euskal preso eta iheslarien oinarriko eskubideen defentsaren aldarrikapena kaleetatik desagertzea. Batez be, Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Epaitegiaren sententzia irmoa kaleratzear dagoan honetan. Edozein mobilizazio, sano deserosoa subertatzen jako ustelkeria eta porrot ekonomiko eta politikoa murgildurik dagoan estatuari, eta operazio polizial honegaz zuztarretik moz-

tu gura izan ditu mobilizazio dinamika. Baina barriro be gaitzailearen papelean etorri da. Harrotasunez, erabateko inpulso politikoa izan dau, Fernandez Diaz jaunak Iruñeara egindako bisitan iragarri legez, "ordurako kontadorea martxan egoala" mehatxatuz. Zuzen-zuzenean Barne Ministeritzatik agindutako operazio honetan, presaka eta korrika, Estrasburgoko epaia atera baino azkarrago behar eban mobimentu herritarra eten. Eta horrek era berean, epaiaren zentzuaren inguruko aztarnak eta itxaropenak emoten deuskuz.

Baina operazio polizial honek, barrikuntzak be ekarri ditu. Izan be, ez-ohikoa izan da atxilotze al-dian atxilotuak jasandako tratua. Orain dala gitxi arte, Herrirako kideak ez eben holango subterrik izango. Izan be, komunikata egon dira, ez dabe tortura edo tratu txarrik jaso, konfiantzako

abokatuagaz deklaratzeari uko egiteko eskubidea izan dabe, eta epailearen aurretik igaro ondoren aske geratu dira, nahiz eta inputazioak larriak diran, Euskal Herriko zein nazioarteko eragile desbardinakaz modu publikoan adostasunak bilatzea helburu izan dauan mobimentu baketsu eta zilegi baten errubakotasuna besterik ezingo dabe epaitu.

Dana dala, jarkera aldaketa hau ez da borondatezkoa izan. Nazi-noartea begira dauan honetan, ezinbestekoa eban inkomunikazioak dakarren torturaren itzalik ez egotea eta estatu demokratiko txukun eta gardenaren irudia emoten saiatu da. Badirudi, orain ez jakozala errentagarri subertatzen sasoi batzuetako errezetak.

Eta barriro poza, poza askatuak izan diralako, bildurra, kezka eta haserrearen ondoren. Nahiz eta debekatu deuskuen jarduna, libre dagoz. Nahiz eta konponbidearen alde beharrean ibiltea debekatu deutseen 18 lagunai, eurak ereindako uzta jasoteko ordua heldu da. Hurrengo erronka handia, eragile desbardinaren inplikazioa handitzea izanda, modu esponentzialean biderkatu da estatuari esker. Argi geratu da Bilboko kaleak milaka tanta urdinez bete diranean. Herritarrek eta eragile politiko, sindikal eta sozialak, Herriraren testigua hartu dabe. Eta holan adierazo dabe, datozen asteetan pausu barriak abiatuko dabezala iragarri.

Heldu da sasoi. Euskal Herriko txoko guztietan sortutako dinamika biderkatu daiguzan, preso eta iheslariak etxeratzea lortu arte. Gatazkaren konponbidean, osasun demokratikozko ariketa hau ahalik eta lasterren gauzatzeko ezinbestekoa dogu.

Tantaz-tanta, bihurtu daigun guztion artean konponbide eta bakearen aldeko itsaso urdina tsunami erraldoi bat. Tantaz-tanta, Euskal preso eta iheslariak etxera!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkainatzen
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN


**BENJAMIN
AURREKOETXEA**
Heroiak

Guretzako hain maitea dan Zuberoarako bi-jean, gona kontuetako sasoian, Mauleko hilerrira hurbilduko zana ez zan hori izango. Bada, sano gazteagoa zanean, herriko eta bailarako lagunakaz psikofoniak egiteagatik-edo, *Ouija* olgetan ibilteagatik-edo, aldikada baten kanposantuetan geldialditxo egiteko behar izana sartuko jakon, onerako; batez be, hain bitxiak eta apartekoak diran iparraldekoak eban gustuko begiraturtea. Une berezia joango zan hilarrietako idazkunak irakurten emongo ebana eta, aldi berean, denpora konturatu barik aurreratuko jakon, ikusten ebanetik hainbat historia preziadu ziranen barrenera bidean. Era guztietako zizelkatuak arakatuko eban, eta danetan gauza berbera barruntauko eban: ilundura, tristezia, galdutakoarenganako mina, baina gomuta gozoa be bai. Ondorengo bertsoa, hango

gudari ezezagunaren hilarrian harek leidutakoa da. Ziur, bertan lurperatuta, inoiz oso ezagunak, alaiak, dibertigarriak, lagunak lagun... eta, parranda zaleen hazurrak dagozala betiko atsedenean, beste leku ezezagun eta ezagun askotan lez, hareek be justizia eske.

Bai, Xenpelar bertsolariak, erromatarren kontrako burrukai buruzko bertsoetan azaltzen dauen erara, euskaldun adoretseueak, mende askotako historia odolagaz eta burruineagaz idatzita itxi deuskue geureari ondo baino hobeto eutsi beharrean. Gaurkoak be, oinazea bide, -antzeria jabiakuz-, esango leuke. Persona asko bizitza osoa emoten dabil burrukan, derrigortuta isilik, kartzelatan... gaixorik... etxetik urrunegi... gorriak eta bi ikusten. Danak, bidebakokeriak jasaten; danak, nondik norakoan gauza larregi ikusi beharrean; eta, danak, bai, danak, euren bizitzari eusteko, egunero, eten barik, gogor bidean geurearen onerako.

*Lur santu honetan dago
Gudari asko lo
Eriotza hil zuen
Bazan salbatuko
Herri aldeko itzalak
Gorde du betiko
Bere izena dedin
Honratu gaur gero
Aurrena Euskal Herrian
Gloria izateko.*

ZERTZEAN


ANGEL LARREA
Bakardadea

Neu eta neure bakardadea, bakardadea eta ni lagunak gara, betidanik adiskidetuta.

Bizitzan bakarrik,
bizi bakardadean,
alaba edo seme bakar!

Bakardade nonahi,
pobrearen bakardadea,
idazlearen bakardadea,
zaharraren bakardadea,
marjinauaren bakardadea,
emakume gaizkituaren bakardadea!

Bakardade tristea,
bakardadearen gizartea,
bakardadearen inpresioa,
bakardadearen frustrazioa,
bakardadearen dominazioa,
kanposantuko azken bakardadea.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hilaren 12an, Arantzazuko plazatik urtenda herriko mugen arteko basoetatik ibili ziran edade guztietako 60 mendizale inguru. Urrietan Arratian mendi urtekera asko egoten dira eta Arantzazuk, herri txikia izanda be, badauka berea. Giro onean ibili ziran inguruko basoetatik eta bazkaria egin eben gero.

Urrietako azken hamabostaldi honetan, Igorreko Mugari Bira, Arratia-Otxandioko Mendizale Eguna, Gorbeia Suzien eta Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunidadearen Zeharkaldia dagoz. Pasealdi ederrak emoteko aukerea Arratiako basoetan zehar.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zirkular 101
R.P.S. 21/06

Olaetxe OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibatua
- Begiko tentsinoak
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
T. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ZEBERIO

Word-kafe eta herri konsultea Zeberio barri bat egiteko

Zeberio gaur egun daukan antolamenturako Plan Orokorra 1988koa da. Herria asko aldatu da 25 urte honeetan eta Hiri-antolamendurako Plan Orokor barria egingo dabe zeberioztarrak.

Erredakzioa

Udalaren asmoa "danon artean" egitea da eta horretarako edade eta ezaugarri desbardineta herriarrai deituko jakie eztabaida foroetan, umeentzako tailerretan eta beste motatako ekintzetan parte hartzeako. Udalean ordezkariak daukien alderdi biak, Bildu eta EAJ-PNV alkarregaz beharrezko dagoen proiektu honetan.

Oso herri zabala da Zeberio, 1057 biztanle bizi dira, 70 auzunetan. Bilbotik hur eta baserri izakera dauka herriak. HAPOa egingo duen enpresak alkarizketak batzuk egin deutse herriarrai herriaren "argazkia egiteko" Ana Belen Alberdi Zeberio alkatearen berbetan. Eta orain hasiko dira beste ekintza batzuek egiten, lehen faseko lan saioak, hain zuzen be. Holan hilaren

24an, parte hartzeako prozesua aurkezteko berbalde edegia egongo da word-kafe formatuan. Zemendiaren 9an, azterketan garrantzizkotzat jo diran gaiak landuko dira eta zemendiaren 25etik 28ra, umeen beharrak eta nahiak jasoko ditue Plan Orokorrean kontuan hartzeako.

Zemendiaren 14an, tokiko garapenari buruzko dokumentalak erakutsiko dabez udaletxean, Zeraineko adibidea eta *Transition Town* mobimentuaren gainekoak.

Parte hartze tresnak

Zeberio Plan orokorrean parte hartu gura daben guztiak aukera izan daie, tresna desbardinak ditue eskura herriarrai. Holan, aita-tutako lan saioez gainera, webgune baten bidez be hartu daiteke parte (www.zeberiodanonartean.com).

Planak hiru fase ditu. Lehenengoan, plana aurkeztu eta herria aztertu ze egoeratan dagoan ikusteko lan saioak egingo dira. Bigarrenean, Plan Orokorrean helburuak ezarriko dira. Fase honetan be lan saioak egingo dira proposamen konkretuak landu ahal izateko: etxebizitza, ingurumena, mobikortasuna... Hirugarren fasean, herri konsulta batez amaituko da lan guztia, "gai garrantzitsuak guztion artean ebazteko".

Planak hiru lan ildo izango ditu: ingurumen arloko gaiak, gai sozial eta ekonomikoak eta urigintza eta azpiegitura gaiak.

Argazkiak eta dokumentalak

Asko aldatu da Zeberio azken 20 urteotan. Lehen bizimodua apenas auzunetik urten barik egiten zan eta auzune bakoitzean taber-



Fernando Garai (EAJ-PNV) eta Ana Belen Alberdi (Bildu).

na bat egoan. Gaur egun, zeberioztarrak plaza ingurura hurreratzeko dira gehiago, Fernando Garai "Txufer" zinegotziaren arabera.

Jakiteko zelangoa zan antxi-

nako Zeberio Argazki Zaharren erakusketean egon zan ikusgai urri bigarrenaren 8tik 13ra eta 10ean, argazki zaharren proiektua eta solasaldia egon zan.

ARRATIA

Etxeko konpostagailuak banandu eta erabilteko formazioa emongo dau Mankomunidadeak

Aukera bi egongo dira Arratian materia organikoa birziklatzeko. Alde batetik, orain artekoa, edukiontzi marroia, eta hemendik aurrera, ortua edo lorategia daukienak, konposta egin ahal izango dabe etxean.

Erredakzioa

Mankomunidadeak konposta egiteko 600 ontzi bananduko ditue etxean konposta egin gura eta ikastaroa egiten dabenen artean. Materia organikoaren birziklapena bultzatzeko kanpaina hau Bizkaiko Foru Aldundiak finantziatu dau eta 138.200 euroko aurrekontua dauka.

Nekazal eremuko etxeetan materia organikoa birziklatzeko, etxeetan bertan konposta egitea, edukiontziak ipintea baino era-

gingarriagozat jo dabe Mankomunidadean. Horregaitik abiatu dabe kanpaina hau hilaren 14an hasi zana, eta zemendian formakuntza tailerrak emongo ditue Arratiako herri guztietan. Ikastaro honeetan konposta egiteko oinarriko kontzeptuak irakutsiko dira eta 360 litroko konpostagailuak, aireztatagailuak eta konposta egiteko gida bananduko dira.

Gainera, udaletxeetan eta Mankomunidadean, trituradorak ipiniko ditue poda hondakinak aprobetxatuko. Eta honek poda

hondakinonek konposta egiten dabenen artean bananduko ditue.

Edukiontzi marroia

Josune Gorospe AUMeko presidentearen arabera, 5. edukiontziak arrakasta izan dau. Izan be, hau "1.500 familia baino gehiagok -ia herrigunetan bizi diranen % 30- eta produktore handien % 89k: tabernak, jate-txeak, janlekuak, frutadendak..." erabilten dabe. Dana dala honen

erabilera be bultzatu gura dabe Mankomunidadean eta jente gehiagok izena emon daian beste kanpaina bat ipini dabe martxan. Holan, etxe guztietan, izena emateko kartel bat ipiniko dabe eta mankomunidadekoak pasauko dira etxetik edukiontzi hau erabilteko behar diran boltsa konpostagarriak, giltza eta informazio orria emateko.

Edukiontzi honeetan sukaldatu bako hondakin begetalak batzean dira.



Josune Gorospe.

DIMA / LEMOA

Liburutegien Eguna ospatuko dabe

Erredakzioa

Hilaren 24an da Liburutegien Eguna eta hau ospatuteko ekintzak antolatu dabez gure eremuko liburutegietan.

Diman egun horretan "Liburutek" egingo dabe. Hau da, herriko leku publikoetan itxiko ditue liburuak gura dauanak eroan daizana etxera irakurteko.

Lemoan ipuin kontalaria egongo da. Saroa Bikandi ipuin kontalaria saio bi eskeiniko ditue liburutegian. Hiru eta bost urte bitarteko umeentzako saioa 17:15ean eta sei urtetik gorakoentzako saioa seiretatik aurrera. Gainera aste horretan, urri bigarrenaren 21etik 25era, liburuak zozketatuko ditue liburutegiko zerbitzuak erabilten dabezanen artean.

Poeta madarikatuak

Hilaren 24an, Poeta madarikatuak! titulupean Edorta Jimenez, Josu Zabala, Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda egongo dira Dimako Herri Liburutegian 20:00etan.

ARRATIA

Gorbeialdek landa garapenerako diru laguntzak tramitauko dauzErredakzioa

Erein eta Leader programai jago-kiezan diru laguntzak Gorbeialdek, Arratia-Nerbioiko Landa Garapenerako Alkartek, tramitauko ditu. Erein proiektua enplegua sustatzeko ekimenak lagunduteko da; Leader proiektua, barriz, mikroenpresak sortu eta garatuteko emoten da. Diru laguntzak hilaren 24ra arte eskatu daitezke.

ARRATIA

3.300 gaztek erabili dabe jaietatik bueltatzeko gaueko autobusaErredakzioa

Arratiako Mankomunidadeak eta Galdakao eta Amorebieta-Etxanoko Udalak ipinitako jaietatik bueltatzeko gaueko autobusak "sano balantze positiboagaz zarratu dau udako denporaldia". Arratiako Udalen Mankomunidadeak jakitera emon dauanaren arabera, eskualdeko lehenengo jaietatik, Igorreko sanantonioetatik, atzenengoak arte, hau da, Galdakaoko santakurtzak arte, 3.300 personak erabili dabe zerbitzua. Guztira, 13 ibilbide izan dira: 9 Arratian, 2 Galdakaon eta beste hainbeste Amorebieta-Etxanon. Zerbitzuak Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Gaztedi programearen finantzazioa euki dau.

ARRATIA

Herriraren kontrako operazioa salatzeke konzentrazioak egin diraErredakzioa

Herrira plataformeari atxikimentua erakusteko konzentrazioak egin ziran Igorren eta Diman. Lanleku aurrean be alkartu ziran beharginak, Lemoako eskolearen aurrean, barbarako, sindikatuak deituta erantzunez. Hurrengo egunean, zapatuan, Bilboko manifestazio handian arratiar ugari egon ziran.

"Euskal presoaren eskubide eta konponbidearen alde" lelopean 150 bat lagun batu ziran Igorreko Kultur Etxe parean urri bigarrenaren 4an, Herriraren kontrako polizia operazioa salatuteko. Diman be 50 persona inguru batu ziran arratian. Han, lehenengo barikuro legez presoaren alde egiten dan konzentrazioa eta ekitaldia egozan deituta eta bertaratutakoak Herrira-ren

atxiloketak eta Auzitegi Nazionaleko Velasko epailearen epaia salatu eben.

EAJ-PNVk eta EH Bilduk bat egin

dabe Herrira-ren kontrako operazio hau salatzeke orduan, "bake prozesua sendotzeke atzerapausu bat" dala eretxita.



LEMOA

Ekitaldi internazionalistakErredakzioa

Askapenak, Euskal Herriaren Lagunak eta Karabie Gaztetxeak hilaren 19rako hainbat ekitaldi internazionalista antolatu ditue "Hamaika herri, borroka bakarra" lelopean. Arrastiko zarpiretan hasiko dira ekintzak kalejira internazionalista batez. Ondoren, 20:00etan, ekitaldi politikoa, herri afaria bederatzitean eta afalostean musika internazionalista Gaztetxean.

Askapenak euskal manifestu internazionalista plazaratu eban igaz, eta marko honetan egingo da Lemoako egun internazionalista. Euskal internazionalismoak "menperakuntza kapitalista, matxista, eta xenofoboaren" kontra egiten dau burrukan. "Nekez bizi

gara jentarte eredu honetan, non soldatapeko esplotazioak eta zapalkuntza hetero-patriarkalak herritar gehienak injustizia eta miseriara kondenatzen gaituen. Nekez bizi gara, plusbalia pilaketak eta irabazien arteko konpetentziak arautzen dabelako, eta beharizan sozial, politiko edo ekologikoen gainetik errentagarritasunaren erespideak nagusitzen diralako" dinoe Askapenakoak euren webgunean.

Munduko musikea

Afalostean, musika internazionalista ipiniko dabe Gaztetxean. Bertan, "DJ bat egongo da munduko musikea ipinten" azaldu deutso BEGITURI Kepa Betzuen Gaztetxeakoak. Munduko musikea, kapitalista, matxista eta xenofoboa ez dan mundu bat aldarrikatzeko.



www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA

Krisia eta kudeaketa publikoaren gaineko ikastaroa UEUnErredakzioa

Udagoienean be egin daitezke UEUko ikastaroak. Krisia eta kudeaketa publikoa Euskal Herrian da bertan egin daiteken ikastaroetako bat. Hau hilaren 28an hasiko da. Beste ikastaro batzuk Isiltasuna gelan eta Kultura arteko hezkuntzaren garapena, hilaren 22an hasiko diranak, edota Sormen-tailer aurreratua ideietatik ekintzetara, zemendiaren 8an hasiko dana. Informazio gehiago www.ueu.org webgunean.



Udako Euskal Unibertsitatea

ARRATIA

Argiak amatauko dabez Arratiako industriaren alde

Hilaren 30ean argiak amatatzeko deialdia egin dau Arratian lan eta bizi plataformeak enplegu suntsiketearen kontra protesta egiteko.

Erredakzioa

Plataforma hau osotuten daben eragile sozial eta sindikalak "Argie amatau etorkizune izitako" izeneko ekimena aurkeztu eben Bedian prensaurrekoan eskualdeak bizi dauan "etenbako pobrezia orokorraren" aurrean.

Plataforma honen arabera, "desindustrializazio isil bat biziten gabiz" eta horren adibide dira Incoesa eta Prefabricados Lemonaren itxierak eta Alfusen izan diran kaleratzeak. Horregaitik, arratiarrai dei egiten deutsee "gure inguruko industria sarea defendatuteko eta gure eskualdearen biziraupena benetako arriskuan jarri leikean edozein egoerari alkarregaz aurre egiteko".

Mobilizazioak

Plataformakoak mobilizazio ge-

hiago egin gura dabe eta arratiarrai ekimen hau aurrera eramateko daukiezan ideak partekatzeko eskatzen deutsee. Dinamika honetan parte hartuteko ahalik eta konbidapen gehien bialdu deutseez kolektibo, talde eta erakundeai,

eta eskualdeko enpresa komiteen atxikimendua espero dabe. Alderdi politiko eta herri plataformak bezala kontaktuan jarri dira udal guztietan mozinoak onartu eta alderdi eta plataformon konpromisoa lortuteko.



Mertxe Ortuzar, Laura Ruiz eta Josu Payas prensaurrekoan.

ARRATIA

Herritarrak ebatziko dabe "baSo aHazuak" dokumentalaren bideragarritasuna

Urri bigarrenaren 23an hasiko da basogintzearen etorkizunari buruz hausnartzen dauan proiektu honen garapena babesteko kanpaina.

Erredakzioa

Dokumentala amaituta dago, eta estreinaldia abenduaren 13an izango da Igorreko Kultur Etxean.

Iker eta Maite Yurrebasok eta Ibai Pujanak esfortzu handiagaz egin deutse aurre "baSo aHazuak" dokumentala grabetako eta montetako erronkeari, "apenas baliabide bari, soilik kamara-toxa eta libretea hartuta" urte hasieran Pujanak, BEGIRUKO azken orrialdeko alkarrizketan adierazo eban bezala. Baina azkenean lortu dabe baso kulturaren memorian sakontzea, basoen kudeaketaren ereduari buruzko hausnarketa eskeiniz. Halanda be, lanik potoloena burututa badago be, oraindino azken ahalegin bat geratzen jakie, izandako gastuak aurre egiteko;

horregaitik jo dabe *crowdfunding*-era edo kofinanziazinora. Kofinanziazioa merezi dauenagaitik ordaintzea da, beti be, gura izan ezker.

Holan, "baSo aHazuak" proiektua gauzatzeko baliabideak lortzeako,

Goteo-Euskadi sare soziala aukeratu dabe sortzaileak. Sare hau, finantziazio kolektiborako eta lankidetzarako sarea da; hau da, helburu sozial, kultural, zientifiko, hezitzaile edota ekologista daukien proiektuetan inbertiduteko plataforma bat.

Beraz, urri bigarrenaren 23tik aurrera www.euskadi.goteo.org webgunean eskuragarri egongo da "baSo aHazuak" en trailerra eta informazio guztia. Erabiltzaileak proiektua aztertzeko aukerea izango dabe eta, gura izan ezker, diruz lagundutako eta finantziakide bihurtzeko. Emondako laguntzearen truke, finantziakideak sari bat jasoko dabe (DVD-a, kamiseteta, zugatz landaketa...). Ondoren, Goteok 40 eguneko epea emoten deutse proiektuaren bultzatzailei aurkeztutako aurrekontuko dirua lortzeako. Diru kopuru minimo hori lortu ezean, finantziakide bakotxari bere inbersinoa bueltatuko litxakio.



Pinudia.

LEMOA

Prefabricados Lemona zarratuko dabe

Erredakzioa

Enpresa eta beharginen artean akordio ekonomiko bat lortuta, Prefabricados Lemona ateak zarratuko ditu, beharginak kaleratuz. Hilaren 7an hasi ziran beharginak euren beharrak ixten eta 2014ko zezeilaren 28an itxiko dabe lana azkenak. Guztira 30 bat behargin dira. Prefabricados Lemona, Cementos Lemona taldekoa da eta CRH talde irlandarra da honen jaubea.

"Sano gatxa ikusten genduan

auzia irabaztea eta beharginak proposamen ekonomiko onartutea balorau eben" azaldu deutso BEGIRUKO David Palacios ELA sindikatuak.

Proposamena onartuta, beharginak lan barik geratuko dira eta CRH ez ditu bere beste enpresaren baten hartuko. Kanean geratzen diran erdiak 50 urtetik gorakoak dira eta beste erdiak 35 eta 50 urte artekoak. "Eraikuntzan beharra topatzeko daukien aukerea hutsaren hurrengoa da" dino Palaciosek.

IGORRE

Lanpostuak bilatzeko plana abiatuko dau Udalak

Erredakzioa

Enplegua sustatu eta herriko lan-gabetu eta enpresen arteko lotura izateko asmoz, Igorreko Udalak Aldalanez egindako Beharbidetako enplegu plana kontratatu dauala emon eban jakitera prensaurrean. Izan be, enplegua sustatzeko 35.000 euroko partidea onartu eban aurrekontuetan.

Azken urteotan hainbat enpresa zarratu, lekuz aldatu edo beharginak kaleratu ditue eta beharra topatzea gero eta gatxagoa da. "Konponbidea emoteko ahaleginean uste dogu Udaletik be ahalegin bat egin behar dala eta herriko enplegua babestu, sustatu eta aukerak errezitate gure erantzukizunaren artean dagoala" esan eban Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Planak hiru fase ditu. Lehenengo fasean, enpresen kontaktuen datu erregistroa egingo da; bigarren fasean, datuak interpretatu eta ekintzak planteatu dira eta hirugarren fasean batzar bat antolatuko da ikerketan jasotako informazio guztia azaltzeko.

"Lehenengo pausu moduan herrian dagoana ezagutuko dogu: enpresen beharizanak entzun

eta ze aukera dagozan aztertu. Horretarako diagnostiko bat egingo da. Kontratazioak sustatzeko, instituzino desbardinatetik daukizun dirulaguntzak zeintzuk diran plantauko jakiez. Baliabide guztiak euren eskuetara ipiniko doguz" esan eban alkateak. "Behar honek egiteko Aldalan enpresearen zerbitzuak kontratatu doguz".

Igorren 150 enpresa inguru dagozala esan eban Anzolak eta herrian dagozan langabeak 315 inguru ziran urri lehenengoan.

Mankomunidadeak Eskualdeko Plana

Arratiako Udalen Mankomunidadea be esfortzuak egiten dabil zentzu horretan. Izan be, Eskualdeko Enplegu Plan eskusiborik izan ez arren, plan zabalago baten hartzean dau parte AUMek Galdakao eta Amorebieta-Etxanoko Udalakaz batera. Plana garatzen dago oraindino. "Eskualdeko diagnostikoa egin, bertoko enplegua sustatu eta garatuko daben ekintzak eta programak modu partekatuan eta parte-hartzailean prestatzea, instituzinoen aldetik ahalik eta adostasun mailarik handiena lortuz" da planaren helburua Mankomunidadeko iturrien arabera.



Nadia Maestro, Beinat Anzola eta Gurutzne Azumendi.

MARRUALDIA

Gorbeiaiko oreinen marruak entzuteko bisitea antolatu eben Parketxeakoak

Gorbeiaiko Parketxeak oreinen marruak entzuteko urtekera bat antolatu eban urri bigarrenaren 5ean. Hogetabost personako talde bat ibili zan iluntzean Gorbeiaiko parkeko pagadietan zehar oreinen bila. Lauzpabost bat marru entzun zituela dino Nerea Etxebarria Gorbeiaiko Parketxeako hezitzaileak. Parketxean mendi urtekerak, berbaldiak, tailerrak eta beste ekitaldi asko antolatuten dira Gorbeia ezagutzera emoteko. Dana dala, oreinakana, euren bizilekura eta bizimodura hurreratzea, ez zan izan errez ahaztuten dan esperientzia, ekintza honetan parte hartu ebenentzat.



Oreina peninsulako baso baten.

laldia izan zan". Arralden, begiraleku baten egon ziran Parketxeakoak eta bisitariak iluntze partean, hiru ordu laurden inguru marruak entzuten. "Eta entzun ziran baina ez asko. Astebete lehenago joan izan bagina, gehiago entzungo ziran, nik uste. Sasoia ia amaituten dago eta oreinak oso urrin egoazan". Datorren urtean, urri lehenengoan joateko asmoa adierazo dabe Parketxeakoak.

Edozelan be, Gorbeiaiko pagadi eta hariztietatik zehar iluntzean ibilteak badauka bere xarma, duda barik.

Pagadi eta hariztietan

Oreinak sasoi baten Gorbeiatik desagertu egin ziran eta pasa dan mendeko 50. hamarkadaren amaieran, Toledotik ekarritako 14 orein sartu ziran. 1988an, ikerketa baten arabera (Castien E. eta Mendiola I., *Estudio de la población de ciervos de Gorbea*. Diputación Foral de Alava), 467 bat orein egozan urte haretan. Gaur egun, zenbat egon daitezkan ez dakie zehatz Parketxean, baina iturri ez ofizialen arabera kopurua mantendu egin dala dirudi. Dana dala, "arazoa furtiboak izaten dira, ehiztari ez diranak. Horreek orein populazioa bajatu arazoten dabe" dino Parketxeakoak. Gaixotasunak, eta naturaren oztupoak be eragina daukie.

Oreinen habitata pagadi eta hariztiak dira batez be. Araba aldean, pagadi handi bat dago, Altubeko pagadia hain zuzen be, eta harizti pilo bat: 10.000 ha baino gehiago dira pagadi eta hariztiak Araba aldean. "Pagadietan eta hariztietan ostonduten dira oreinak. Nahiko handiak diranez, leku handia behar dabe ostonduteko". Uda goienean, marrualdi sasoiaren, arrak emeak erakarteko egiten dabez

Erredakzioa

Urrietan izaten da oreinen marrualdia: urri lehenengoaren erdikaldean hasi eta urri bigarrenaren erdikaldera arte irauten dau, hilabete bat gitxi gorabehera. "Eguraldiaren arabera, apur bat aurreratu edo atzeratu egin daiteke" dino Nerea Etxebarria. Orein gehienak Gorbeiaiko Araba aldean bizi dira eta urteetan Araba aldeko Sarria Parketxeak antolatu ditu urtekerak orein arren arteko burrukak ikusi eta marruak entzuteko. Baina, gero eta mugatuago dagoz lekuak animaliak ez molestetako eta aurtentzen ez dabe antolatu urtekerarik.

Gorbeiaiko Bizkaiko aldean barriz, orein gitxiago egon arren, aurtentzen oreinen marruak entzuteko bisitaldia antolatu dabe Parketxeakoak. "Saldropotik Arralderaino joan ginan, Bizkaiko eremuan bakarrik ibili gara. Ordubeteko ibi-

begitu
arratia ubide zeberio

LEHENENGO URTEKO KURTAN
%15eko DESKONTUA
SESOREAK
basolo Emaldi
ARRATIA ARRATIA
Abokatuak
94 673 60 55
www.begitu.com

ENKARGUAK HARTZEAN DOGUZ
TALLER DE
MANUALIDADES
lucastecid@euzkadi.eus
lucastecid@euzkadi.eus
lucastecid@euzkadi.eus
609 991 414 (Natalia)
pilaranmartxondi@gmail.com
641 991 884 (Pili)
Aretza

HERRIKO
BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Ibañeta)
Tel. 94 631 72 56

expert ARRATIA
Edova
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Leh. Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE

OPEL
ibalgane, S. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LENDAKA (Ibañeta)
Tel. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

bbk

Ametzola
Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

ARA OTZ
Lantzen O Jabetzen!
Tel. 94 673 60 55 - email: info@ararantz.com
Barrio Ugarena 2. et. - 48141 Oñate - (Ibañeta) www.ararantz.com

946 319 008
658 195 091
GALANTA
zure barruko arropa
M. JOSE
barrutik janzten zaitu
Agirre Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es
www.facebook.com/galantak



Itxina.

Argazkia: Areatzako Parketxea.

burrakak. Burrakak gogorak egiten dabez euren adarrakaz talka egin ez. Eta soinu gogor bat be egiten dabe, marrua. Jenteak ikusi gura izaten dau burrukaren ikuskizuna eta euren marruak entzun.

Gorbeia bat, parketxe bi

Bizkaiko aldearen gestinoa Areatzan dagoan Gorbeia Parketxeak daroa eta Araba aldekoa, barriz, Sarria Parketxeak. "Nahiz eta dana Gorbeia izan, eurak daukie gestino bat eta guk beste bat. Hareek daukie ekintza batzuk eta guk beste batzuk" dino Etxebarriak. Honen ustez, tratu handiagoa egon be-

harko litzateke parketxeen artean, eta urtekerak lurraldeen mugak kontuan izan barik antolatu.

Areatzako Parketxeak oreinak entzuteko Bizkaia aldeko Gorbeian antolatu eban lehenengo urtekeran 25 personak parte hartu eben. "Gehienak Bilbo ingurukoak ziran, batzuek baso honeek inoz ikusi bakoak. Gaubez bueltau ginan herrira". Pagadietan ostonduta, oreinak goizaldean edo iluntzean baino ezin dira entzun edo ikusi.

Goizaldeko urtenaldiak eta perretxiko erakusketea

Ez da Gorbeiatik gaubez ibilteko

Pagadietan eta hariztietan ostonduten dira oreinak

Parketxeak eskeintzen daben aukera bakarra. Goizeko bost t'erdietan be urten dira kurutzerrantza, eguna zabaltzen ikusteko. Dana dala, Parketxeak antolatuten dituan ekintzen artean, arrakastutsuenetakoak eguneko mendi urtekerak dira. Batez be, Itxinara urtekerak dauka arrakasta handia. "Gorbeia puntara bakarrik edo lagunakaz joan daiteke ezagutu ez arren, ez dauka arriskurik eta. Baina Itxina beste gauza bat da, leku itxia da eta lainoa sartzean bada... Gainera han leize asko da-

goz. Ezagutu arren, galtzea erreza da Itxinan. Orduan jenteak ikusten dauanean urtekerak bat dagoala talde bategaz, izena emoten dau, trankilago joaten da eta".

Parketxeak antolatutako hurrengo ekintza perretxikoen erakusketea da. Hilaren 27an izango da, Areatzako plazan goizeko 11:00etan. Urtero lez, mikologo adituak etorriko dira perretxikoak sailkatzen eta erakusketan jentearen zalantzak argitzen. Areatzako tabernak be hartzean dabe parte egun horretan perretxiko pintxoak egiten.



Altube.

Argazkia: Areatzako Parketxea.

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



MENDIA

Arratia, Otxandio eta Ubideko mendizaleak Zeanurin batuko dira**Erredakzioa**

Arratia, Otxandio eta Ubideko XIV. Mendizale Eguna hilaren 27an izango da eta aurten, Zeanuriko Joko-Alai mendi taldeari tokau jako antolatutea. Ibilbideak 17 km. izango ditu eta 700 m.ko desnibela, lau ordu t'erditan "asko sufridu barik" egiteko modukoa. Urtekerea 08:30ean izango da Zeanuriko plazan.

Zeanuritik urten arren, mendizaleak ez dabe Gorbeiarantza joko, Urrekoatxarantza baino. "Gorbeia aldea nahiko esplotauta dagoala pentsetan dogun ezker, beste alderantza mobidutea pentsau dogu. Ez zan erreza izan, ze Zeanuri Gorbeia barik ez da inoren buruan agertuten. Eta alternatiba bat begiraturerako, bat bakarra ikusi genduan: Urrekoatxa. Mendi txikerra da baina bertatik ikusten diran parajeak ez deusie inongo mendiari enbidiarik" dioe Joko

Alaitik.

Antolatzaileak, igazko moduan, 180 partaide inguru aurreikusten ditue. Martxa honen helburua ez dala jente asko batzea, bertan parte hartzean dabenak "ondo pasetea" baino, dinoe.

Arantzazuko Arginatxek be hartuko dau parte

Urtean zehar mendi talde bako txak bere ekitaldiak eta egutegia dauka. Inguruko mendizaleak ibilbide bat alkarregaz egin dagien antolatuten da urtero egun hau. Parte hartzean daben mendi taldeak txandaka antolatuten dabe ibilbidea. Lemoako Ganzabal Mendi Taldeak, Igorreko Motxoganeak, Otxandioko Miru Gainek, Ubideko Amexierrek eta Zeanuriko Joko Alai antolatu dabe aurreko 13 urteetan mendizale eguna. Aurten, Arantzazuko Arginatxek be hartuko dau parte lehenengoz.

HERRI KIROLAK

Igor Astondoak irabazi eban txukuntasun txapela segan**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 5ean, Bizkaiko segalarien txapelketea nazioarteko eran jokatu zan. Lana 100 metro ahal dan eta azkarren eta garbien moztutea zan. Azkarren Jon Lapatzaraneak moztu eban bedarra eta Pabi Astondoa Zeanurikoak hirugarren egin eban. Txukuntasunari jagokonean, txapela Arratiara ekarri eban Igor Astondoa Igorrekoak.

Txapelketan, bederatziz segalarik hartu eben parte. Atal bi zituan txapelketak eta lehenengo laurak finalera sailkatzen ziran. Horreen artean, arratiar bi: Pabi Astondoa eta Igor Astondoa.

Trontza mixtoa eta lasto botatze

Egun bi beranduago, hilak 7 zituan, Zallan Trontza Txapelketa Mixtoa eta Lasto Botatze Txapelketea jokatu ziran. Trontzan, txapela Arratiara ekarri eben Igor eta Irati Astondoak. Lasto botatzen, barriz, Tubi dimoztarra, bigarren postuagaz konformau behar izan zan.

Lau bikote neurtu ziran trontzan, 15 ebaki eginez. Arratiako bikote bik hartu eben parte proba honetan: Igor eta Irati Astondoak, eta Naiara eta Julen Etxebarriak. Txapela Igor eta Irati Astondoak jantzi eben eta segundu gitxira Julen eta Naiara Etxebarriak lortu eben bigarren postua beste bikote biak atzean itxita.

Lasto botatzen barriz, Jose Lapatzaraneak jantzi eban txapela, Tubi bigarren zala.

MUGARI BIRA

Igorreko munarriak ikusteko martxa arautua**Ibiltariak anoagunean.****Erredakzioa**

XXVI. Mugari Bira izeneko mendi martxea antolatu dau Motxogan Kultur Alkarteak hilaren 20rako Udalaren laguntzeagaz. Ibilaldi bi dagoz aukeran, luzeak 25 km ditu eta laburrak, 12 km. Urtekerea Igorreko kiroldegitik izango da, 08:30ean ibilaldi luzea egiteko eta 09:00etan laburra egiteko. Izen emotea urtekerea baino ordu erdi lehenago izango da. Tomas Arandiaren omenez egiten da martxa arautu hau.

Kiroldegitik urtenda, San Kristobal eta Garamenditik zehar joango da ibilbidea. Lehenengo kontrola Belatxikietan, Kabreruean izango da. Gero Urkuzu eta Apariorantza joango dira ibiltariak eta Aparioko txabolan barauskarria izango dabe. Hemendik Arginatxera abiatuko dira. Arginatx (524 m.) da tontorrik altuena. Gero, Apalako puntatik, Iturtzatik eta San Migel baseleizatik pasauko dira eta kiroldegian amaituko da martxea.

Antolatzaileak 250 lagun inguruk parte hartzea espero dabe.

Tomas Arandia "Piru"

Hogetasei urte dira Igorreko mugarietarik udagoienean ibilaldia antolatuten dala bertako parajeak ezagutu eta gozatzeko. "Orain 26 urte, herrietako munarrien ikusketaren ohitura zana kaleratzea eta herriak parte hartzeako mugimendu bat izan zan. Mobimendu horren bultzatzailetariko bat Tomas Arandia izan zan eta beroneguz Ander Gorospe eta Tomas Garcia" azaldu deusio BEGITURI Manu Legarreta antolakuntzakoak. 2002an hil zan Arandia eta harrezkero honen omenez egiten da ibilaldi hau.

"Tomasek mendia eta natura maite ebazan. Mendigoizalea zan eta eginkizun horretan Pirineoko, Euskadi eta Espainiar estaduko mendi gehienak zeharkatu ebazan. Mendizaletasun hau umeai zabalitzen saiatu zan eta horretarako eskolako guraso alkatetakoak eta beste lagun batzuk, mendi talde bat sortu eban. Eskola horretatik hainbat ume eta guraso pasau ziran eta askok ekintza horreekaz mendia maitatzen ikasi eben" ekarri dau gogora Legarretak.


BTT

Mendi bizikletea Artean**Erredakzioa**

Arteako Kirol Kultur eta Euskera Taldeak Arteako III. BTT Martxea antolatu dau hilaren 20rako. Urtekerea goizeko 09:30ean izango da plazan eta ibilbide bi egiteko aukerea egongo da. Luzeak 42 km. ditu eta laburrak 29 km. Izen emotea AKKTren webgunean egin daiteke edo egunean bertan urten aurretik.

Ibilbide luzea egiten dabenak Mandoia eta Bikotx-ganen ditue

tontorrik altuenak; laburra egiten dabenak, barriz, Mandoiara eta Lauretara igon behar izango dabe. Zerberiotik be pasauko dira partaideak eta han izango dabe anoagunea.



indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda
sew
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu

Elejalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTSULTAN
ONDASUN HIGAZZINEN
ASIGURUEAN

Beltza Arana, 3. Floor. 34 671 71 61 - Fax: 34 671 34 61 - 48140 IGORRE

axular
kultur elkartea

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Pinturas Arandia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MENDI LASTERKETEAK

"Suziten" dator Gorbeia Suzien 2013 lasterketea

Hilaren 19an lehiatuko da Euskal Herriko Txapelketea Zeanurin. Partaidetza handia egongo da aurten lasterketea egiteko 475 dorsalak banandu dira-eta honezkeror.


Irati Urien

Martxan be beste 475 personak emon ahal izango dabe izena, eta oraindino lekua dago. Eguaztenean, hilak 16, amaituten da inskripzioak egiteko epea internet bidez. Dana dala, martxarako egunean bertan be emon daiteke izena, lekua egon ezkeror.

Munduko Koparen azken proba Limone Sul Garda-n (Italia) jokatu zan hilaren 13an eta gizonetako sailkapenaren bigarren postua lortu eban Ionut Zinca, hirugarren gelditu zan Aritz Egea, bosgarren egin eban Zaid Ait Malek, seigarren izan zan Jokin Lizeaga urnietarra eta andrazkoetan Leire Agirrezabalaga bosgarren izandakoa, ikusteko aukerea egongo da Gorbeia Suzien beste hainbat goi mailako korrikarigaz batera, esaterako Phillip Reiter, Nuria Picas, Silvia Serafini edo Tofol Castanyer.

Ezin dira ahaztu egingo diran beste ekintza nagusi biak. Eguenean, hilak 17, gaitzat "Nutrizioa

eta kirola" hartuta, Eneko Izak mahai-ingurua gidatuko dau. Areatzako Udal Aretoan 19:30ean izango da eta bertan Josean Lekue Athletic-eko medikua, Kepa Lizarraga, medikua eta Jokin Lizeaga korrikalari eta entrenatzailea egongo dira. Barikuan, Iker eta Eneko Pou anaia "20 urte mendi bertikaletan" ikus-entzunezkoa aurkeztuko dabe frontoian 20:00etan.



Ionut Zinca igazko irabazlea.

AIZKOREA

Atutxa Euskal Herriko finalera

Irati Urien

Hilaren 12an saio bi euki zituan Aitzol Atutxa aizkolari dimoztarrak. Goizean, Bizkaiko Bikotekako Txapelketea irabazi eban Kepa Atutxa aitagaz Basaurin. Hamargarren urtez hartu dabe parte aita-semeak txapelketa horretan, eta lehenengo urtean txapeldunorde gelditu baziran be beste bederatzirtean garaipena lortu dabe.

Egun haretan bertan, arrastian, Asteasun izan eban Euskal Herriko Lehen Mailako kanporaketea. Hamaika aizkolari ibili ziran lehian eta honeek seirak lortu eban finalerako pasea: Nazabal, Otaño, Azurmendi, Rekondo, Atutxa eta Olasagastik. Arratiarra final horretan sartuko zaneke seguridade osoa egoan, eta holantxe izan zan. Lehenengo postua Floren Nazabal Nafarrarentzako izan zan, 16'11"ko denporeagaz. Atutxa II.ak 18'32" behar izan eban bosgarren postua lortuteko. Honen esanetan, "arrastiko saioagaz gustura gelditu nintzan, helburua finalean sartzea zan eta pozik nago hori lortu izanagaz". Finala abenduaren 8an jokatu da Elgoibarren.

Osterantzean Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligan lau jardunaldi jokatu eta gero hirugarren postuan dago arratiarra zazpi puntugaz.

FUTBOLA

Arratia futbol taldeak zuzendaritza barria dauka

Ainhoa Duñabeitia

Denporaldi barriagaz batera Arratia Futbol Taldeko zuzendaritza batzordea aldatu da. Lau urte pasau dira Iratxe Ortiz, Nerea Barrenetxea, Zigor Antxia, Emilio Barrenetxea, Aitor Galarza, Asier Etxezarraga eta Oier Amorrota zuzendaritza jarri ziranetik eta ez jarraituteko ebatzia hartu eban aurreko denporaldia amaitu zanean. Zuzendaritza barriari Asier Etxezarraga izango da presidente aurreko lau urteetan legez. Jon Zabalak, Jose Mari Orbek, Gorka Salcedok, Pedro Jose Ormazabalak, Jose Bouzak eta Aitor Galarzak osotzen dabe Zuzendaritza Batzorde barria.

Arratia B taldea sortu dabe

Zuzendaritza Batzorde honen proiektuetako bat talde guztiak Arratia izena elastikoan erotea da, Benjaminetik hasita Nagusien taldera arte. Arratia B taldea be sortu dau zuzendaritza barriari herriko mutil gazteak futbolera jokatzeko aukerea izateko.

Neskentzako kadete mailako taldea sortzeko proiektua be aurrera ateratu dabe eta ligea be honezkeror hasi da.

2013-2014 denporaldia

Aurtengo denporaldia hasita dago



Arratia.

eta nesken talde nagusiak hiru partidu jokatu dabe. Horreetatik bi galdu dabe eta bat irabazi. Hirugarren jardunaldian, Gasteizko Neskak taldea izan eban aurkari. Ez eban partidu ona egin Arratiak huts eta bat galdu eban eta neurketea. Hurrengo norgehiagokea Peña Athletic-en kontra izango da hilaren 20an etxetik kanpo.

Mutilak, barriz, lau partidu jokatu ditue. Horreetatik 2 irabazi eta beste 2 bardindu ditue. Atzenengo etxean jokatu eban Ugeraga taldearen kontra; bi eta bat irabazi eban Arratiakoak.

Aurtengo apustu barriak, Arratia Bk, partidu bi jokatu ditu, lehenengo galdu egin eban eta bigarrean bardinketea lortu eban. Sondika B 4 - Arratia B 4. Hurrengo norgehiagokea Ermua taldearen kontra izango da.



APUNTA ZAITEZ!

ETXEKO KONPOSTAGAILUAK

Baserria, lorategia edo ortua badekozu hasi zeure konposta egiten hondakinetakoa materia organikoagaz!

Azaroan, Mankomunitateak formakuntza tailerrak emango dauz Arratiako herri guztietan. ZAINDU GURE LURRA!

Emon izena: 94 631 17 17
www.arratia.net



ESKULANAK

Hiru metroko txotxongiloak egiteko tailerra Areatzan zemendian**Erredakzioa**

Les grandes personnes marioneta egile talde frantziarraren gidaritzapean, Zeberioko Maurizia, Arteako Leon eta Igorreko Fasio musikarien marionetak egiteko tailerra antolatuta dabe Areatza, Artea eta Igorreko Udalak. Hiru metroko txotxongilo honeek auzolanaren filosofiagaz egin gura dabez antolatzaileak, zemendiarren 1etik 10era.

Proiektua aurrera ateratzeko hamabost persona hamar egunetan, goizean lau orduz eta arrastian beste lau orduz egon behar dira beharrean. Eskulan tailer hau doban da, beharrezko truke, eta azken egunetan, zemendiaren 10ean, kalera aterako dabez marionetak herri osoak ikusi daian behar horren emoitza. Areatzako Udalak ipiniko dau lokala eta behar diran materialak. Frantziako Institutuaren laguntza be izan dau proiektuak.

Antolatzaileen esanetan, tailerrean parte hartzeako ez dago zertan eskulanetan trebea izan, "danontzat da". Umeak parte

hartu daikie gurasoakaz batera eta ordutegiaren aldetik malgutatsuna dago, bakotxa ondo etorten jakonean egon ahal da. Maurizia, Leon eta Fasioren argazkiakaz, egin dabe diseinua *Les grandes personnes* taldekoak. Gero buztina, papela, burdina eta abar erabiliz eregiko dabez irudiak. Txotxongilo horreekaz eta Gipuzkoako beste bigaz, Oreka Tx, Lekeitioko Jaialdiak eta Kukubiltzoko Josu Kamarak "Gure musikari handiak" izeneko ikuskizuna egingo dabe. Hori dala eta, txotxongilo arratiarrak mundutik ibiliko dira folk jaialdi eta kale antzerkietan, barriro Arratiara itzuli arte.

Orain arte, hiru udalek lagundu dabe hau aurrera ateratzeko, baina "horrek ez dau esan gura, beste udalek ezin dabela lagundu. Beste udal edo alkarte batzuk gogoia badaukie proiektuan sartzeako, atea zabalik daukie" dino Josu Imanol Agirrek Lekeitioko Kale Antzerkiaren Jaialdiaren zuzendari artistiko eta proiektu honen bultzatzaileetakoak. Txotxongiloak egiteko arratiarren partaidetza

ezinbestekoa dala azpimarratu dau Agirrek.

Maurizia, Leon eta Fasio herri musikaren ondarea

Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdiak ikuskizunak sortzean dauz. "Oreka TX-egaz berba egiten, ikusi genduan Euskal Herriko herri musikari batzuk berreskuratu behar zirala. Euskal musikagintzan egon diran musikari batzuk oso inportanteak izan dira, baina ez dira ezagutzen. Maurizia, Leon eta Fasio, barbarako, ez dira apenas ezagutzen Arratiatik kanpo, eta garrantzitsuak izan dira gaur egun daukagun musikea izateko: Tapia, Junkera, Oreka TX, Ibon Koteron... horreek guztiak edan dabe Arratiako trikitixatik" dino Agirrek.

Maurizia Aldeiturriaga (Zeberio, 1904-1988) panderojolea, Leon Bilbao (Artea, 1916-1990) albokaria eta Bonifazio Arandia "Fasio" (Igorre, 1909-1987) trikitilariaren irudiak zabaldu eta herri musikearen historia berreskuratu dabe txotxongilo honeei esker.

ONDAREA

Eleizak eta galtzadak ezagutzeko aukerea hilaren atzen astegoienetan**Erredakzioa**

Hilaren 19an, Zeanuriko Udalak antolatuta eta Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Eleizondoko Andra Mari Parrokia, Nestor Basterretxearen kurutzeta eta Piedadea ezagutzeko aukerea egongo da arrastiko seiretan. Hurrengo zapatuan, 26an, Igorreko Andra Mari eleizea bisitatu edo Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunidadearen zeharkaldia egin daiteke.

Zeanuriko Elizondoko Andra Mari parrokia 1702 eta 1751 urteen artean dago eregita eta 1994. eta 2000. urteen artean, zaharbarritu eben. Bertan, "Bizkaiko erretaularik ederrenetako bat ikusi daiteke". Nestor Basterretxeak Gorbeia kurutzearen mendeurrena ospatuteko altxautako kurutzeta eta Piedade erren-

degi baseleizeak osotuten dabe multzoa. Hitzordua Zeanuriko plazan da eta hau ikusteko ordubete eta erdi inguru kalkuletan dabe antolatzaileak.

Igorreko Andra Mari eleizea ala mendi martxea

Hurrengo zapatuan be, beste erlijio ondare bat ezagutzeko aukerea dago, Igorreko Udalak antolatuta, Andra Mari eleizeari bisitaldia, goizeko 11:00etan izango da Angel Larrea historialariaren eskutik.

Larreen Mankomunidadearen zeharkaldia aukeratzetan dabenak, barriz, 10:00etan batuko dira Ubideko plazan, ordu bi eta erdiko mendi ibilbide bat egiteko. Ibilaldi hau Zeanuriko eta Ubideko Udalak, Ipizki Taldeak, Joko Alai Alkarteak, Amexier Mendi Alkarteak eta Ortuzar Ubideko Gazte Asanbladeak antolatuten dabe.

**Larreen Mankomunidadearen zeharkaldia egiten.**

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO PINTXOAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

BERBALDIA

Bertsolaritzan "kontzientzia femininista" behar da



Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegia.

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 11n Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariak egon ziran Igorren, bertsolaritza "begirada feminista" bategaz aztertzen. Orain dala gitxi arte, gizonen mundua izan da bertsoen mundua, baina bertso eskolak sortu ziranetik kantetan daben neska eta andren kopurua hazi egin da. Neskak eskoletan destakau arren, gitxi dira plazatan ibiltzen diranak, "bertso giroa, gizon helduen giroa" izan dalako orain gitxi arte. Maialen Lujanbiok bertsoak egiteko beste modu bat ekarri dau eta ekarpen hau teorizatze beharra azpimarratu eben Igorren Alberdik eta Agirreazaldegik.

Txapelketetan bertsolarien % 30 andrak dira, plazetan, barriz, % 20 baino ez dirala izan neska bertsolariak urriko agendan esan eban Alberdik. Izan be, "Euskal Herrian

bertsolari "normala" gizonen mundua, gipuzkoarra, ezker abertzalekoa, heterosexuala, klase ertain-altukoa eta intelektuala da". Neskak lehenengo ezaugarria be ez dabe betetzen.

Drag King eta "panpinak"

Oholtzan maskulinitzat jotzen diran ezaugarriak baloratu dira eta aurrera egin eben lehenengo andrak kode maskulinoa eta balio maskulinoak erabilten zituen. "Sebastian, Mañukorta eta abarren kodea, hain zuzen be". Honek *Drag King* moduan izentatu zituen hizlariak.

Ondoren, beste belaunaldi bat etorri zan. Honek, "benetako neska" ziran: itxura zaindua, abots suabea... "Panpinak", Alberdi eta Agirreazaldegiren sailkapenean. "Biak ziran gizonen hegemoniatik hartutako estrategiak. Lehenengo emozinoak, desirak, sentimentuak eta abar ez ziran existidu. Bigarrenak patriarkadua molestaten ez dauan

eredua hartu eben eta neurritasuna izan zan honeen kortsea".

Holan, bertso eskoletatik neska bertsolariak urten arren, laster plazan kantatzeari itxi egiten eutsien, deseroso sentiduta. "Leku egin euskuen euren munduan baina lekuri egin eutsien gure munduari?" itauntzen eben. Sensazio horreek landu zituen Askizun andra bertsolarien topaketa batzuetan. Ondino sensazioak baino ez ziran, Maialen Lujanbiok berbaldi baten markoa emon eutsen arte.

Eskemea irauli beharra

Atzen urteotan neska sensazioak, emozinoak, barne bizitza eta empatia ekarri dabez oholtzara. "Eta emozino politikoa da, personala politikoa dan moduan". Inportantea izan arren, ez da nahikoa gero eta andra gehiago oholtzan izatea. "Ez da nahikoa andrak kantatea, kontzientzia feminista behar da, eskemea irauli" esan eben. Komunitate feministak komunitate kulturalari egindako ekarpenak eta komunitate kultural batetik sortzean diran diskurso feministak euki behar dira kontuan. Gainera, "diskurso, ikuspegi feminista edo antisexista barneratu daben epaile, kazetari, kritikari, gai-jartzaile eta abar behar dira. Hau lortzeako, bertsolaritza eskola feministak sortu dira".

Maialen Lujanbiok bertsolaritza egiteko beste modu bat ekarri eban, baina oraindik ez dala teorizatu bertso eskoletara eroateko esan eben hizlariak. "Aurten Lujanbiok ez badau barriro irabazten Euskal Herriko Txapelketa, ez da egingo, ez da bertso eskoletara eroango bertsoak egiteko modu hau eta desagertu egingo da. Berandu gabiz" kejavu ziran.

ERAKUSKETEAK

Ekitaldi "pagano" eta erlijinozkoak erakusten dauzan argazki erakusketea Igorren



Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 31ra arte Jesus Mari Arruabarrenaren "Kristopaganian" argazki erakusketea dago ikusgai Igorren Kultur Etxean. "Jainkozkoa" eta "Paganoa" gure gizartean sarri askotan agertzen diran kontzeptu eta jarkera kontrajarririk dira eta interesgarria dan isla dabe jai herrikoietan zein erlijino ekitaldietan. Hauxe da Arruabarrenaren argazkiak erakusten dabena. Aratusteak, zaindarien jaiegua

nak, Aste Santua, erromeriak eta beste asko egutegi zorrotz bateri jarraituta ospatuten dira urtean zehar. Batzuetan balantza haragizkoa, atsegingarria edota lotsabakoa danaren aldera okertzen da, besteetan aldiz penitentzia eta espiritualtasunaren aldera. Zenbait kasutan poloak kurutzatu egiten dira, mezu nahasgarriak eta iradokitzaileak emon eta bigarren irakurketak egiteko aukerari bide emonaz. Baina bizitza beti itzultzen da bere bidera.

DUNBA

Gorbeia Suzien

Zeanuriko 6. mailako ikasleak

Aurten be, bigarren aldiz, Zeanuri herrira hurreratuten gara Gorbeia Suzien ospatuten dalako.

Gorbeia Suzien, Suzien taldeak antolatutako lasterketa bat da eta Gorbeia bide ezezagunak erakustea da honen helburua. Lasterketara korrikalari ospetsuak etorten dira, Oihana Kortazar eta Silvia Serafini adibidez.

Baina ez da lasterketea bakarrik egingo; umeentzako martxa bat be egingo da.

Zeanuriko umeentzat, Gorbeia Suzien ez da lasterketa bat bakarrik. Astegoen berezi bat ospatuko da eta bertako eta inguruko ume guztiak ondo pasetako

aukerea eukiko dabe. Eguen, bariku eta zapatuan kirola gustetan jakon neska-mutilentzako ekintza asko prestatu dabez. Urri bigarrenaren 17an, egunean, Athletic-eko medikua dan Josean Lekue, Kepa Lizarraga medikua eta Jokin Lizeaga korrikalari eta entrenatzaileak nutrizinoa eta kirolaren gaineko mahai-ingurua egingo dabe Areatzako Udal Aretoan. Hilaren 18an, barikuan, Aitor Elduainen kazetariaren laguntzeagaz, ibilbidearen aurkezpena egingo da. Eskaletea gustetan jakon neska-mutilentzako, Pou anaiak "20 urte mendi bertikaltan" izenburua daukan dokumentala aurkeztuko dabe. Eta egunik garrantzitsuenean, Urri bigarrenaren



6. mailako ikasleak igazko Gorbeia Suzieneko kamisetakaz.

ren 19an, zapatuan, goizeko hamarretan umeen martxa hasiko da. Zeanuriko ikasleak, martxara animatuteko, Arratiako neska-mutilak konbidatuten zaituegu umeen martxan parte hartzeako. Modu honetan, kirola modu

osansuntsu eta egokian egiteko aukerea izango dozue.

Honen ostean, umeentzako jolasak, rokodromoa, puzgarriak eta slackline egiteko aukerea be egongo da. 13:30ean sari banaketea egingo da eta 14:30ean

bazkaria. 16:30ean slackline erakustaldia, eta jantza egiteko gogo daukienentzat erromeria Aikogaz. Igorrenko Batukada taldea be egongo da 20:00etan jai alaituteko.

Igazko Gorbeia Suzien ondo egon zan, baina, gauza txar bat gertatu zan. Famadu bateri, hau da, Hassan-eri motxilea ostu eutsien. Aurten, holango gauzarik ez pasetea espero dogu. Kirola atxakiatzat hartuta, danok astegoen on bat igarotea espero dogu.



AGENDEA

**URRI BIGARRENAK 16
LEMOA**

19:30ean, Jai Batzordea: jaien balorazioa egiteko batzarra udaletxean.

**URRI BIGARRENAK 17
AREATZA**

19:30ean, AKKBk, Suzien Mendi Klubak eta Hesperiak Udalaren laguntzeagaz antolatutako berbaldia, "Nutrizioa eta kirola" Udal Aretuan.

ARTEA

18:00etan, AUMeko Bardintasan Zerbitzuak eta Osakidetzak antolatutako berbaldia "Zelan eragiten deuto andra eta gizonen arteko desbardintasan osasunari?". Hizlaria Txus Ziarrusta.

**URRI BIGARRENAK 18
IGORRE**

17:30ean, Emakumeen arteko lehenengo topaketa interkulturala Kultur Etxean. *Flores de otro mundo* filma eta kafea, pastak eta solasaldia. Igorreko Bardintasan arloko erata.

ZEANURI

20:00etan, Pou anaien ikusentzuekua "20 urte mendi bertikaletan" frontoian.

**URRI BIGARRENAK 19
LEMOA**

18:00etan, Antzerki tailerra Gaztelekuan. Elizondoko Kultur Gunean.

Hamaika herri borroka bakar. Egun internazionalista. 19:00etan kalejira internazionalista. 20:00etan ekitaldia. 21:00etan herri afaria. Afalostean musika internazionalista Gaztelekuan. Askapena, Karabie Gaztelekua eta Euskal Herriaren Lagunak-ek antolatuta.

IGORRE

22:00etan, zinea *Ahora me ves* Lasarte Aretuan.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 06:30etik 08:00etara, oinezkoen inskripzioa. (Beteta ez badago). 07:30etik 08:00etara, martxearen urtekerea. 09:15ean, lasterketearen urtekerea. 10:00etan,

umeen martxea. 11:00etan, umeen jolasak, puzgarriak, slackline, rokodromoa. 13:30ean, sari banaketea eta materialaren zozketea. 14:30ean, bazkaria. 16:30ean, slackline erakustaldia. 18:00etan, erromeria Aiko taldeagaz. 20:00etan, Igorreko BTKDA Batukada.

18:00etan, Eleizondo monumentu multzoari bisita gidatua. Zeanuriko plazan.

**URRI BIGARRENAK 20
ARTEA**

09:30ean, Arteako III. BTT Martxea. Plazan.

IGORRE

08:30ean, Moxogan Kultur Elkartek Udalaren babesagaz antolatutua, XVI. Mugarri Bira. Kiroldegitik urtenda.

17:00etan, umeentzako zinea *Gru 2 Mi villano favorito*. 19:30ean, zinea *Ahora me ves* Lasarte Aretuan.

**URRI BIGARRENAK 24
AREATZA**

19:00etan, zineforuma *Umberto D.* (Vittorio de Sica, 1952). Areatzako Udal Aretuan.

DIMA

"Liburutruk" liburuk leku publikoetan ibiko ditue.

20:00etan Poeta madarikatuak! Rafa Rueda, Edorta Jimenez, Josu Zabala eta Gotzon Barandiaran, Herri liburutegian. Udalak eta liburutegiak antolatuta.

LEMOA

17:15ean, Saroa Bikandi ipuin kontalaria 3 eta 5 urte bitartekoentzako saioa. 18:00etan, Saroa Bikandi ipuin kontalaria 6 urtetik gorakoentzako saioa.

ZEBERIO

18:30ean, Hiri-Antolamendu Plan Orokorra aurkezteko berbaldi irekia eta world-kafe.

**URRI BIGARRENAK 25
IGORRE**

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta berbaldia "Slackline".

**Far west Igorreko Kultur Etxean**

Hilaren 27an arrastiko 20:00etan izango da *Far west*. Yllanaren lehen lana da Western generoan. Konpainia madrildarra 1991tik dabil ikusleen barre-algarak eragiten keinu-bidezko antzerkia erabiliz. Geroztik *Muu!*, *Brokers* eta *666* bezalako harribitxiak sortu ditu, generoaren adierazle onenetakoak. *Far west* lanean, mendebaldeko urrunerako biaje dibertigarria proposatzen dau.

Yllana konpainiak pantaila handiko western klasikoaren osagai guztiak bildu ditu istorio zoro baten. Ikuskizuna generoari eskeinutako omenaldia da, baina antzokietan ikus daitekean umorerik onenaz gozatzeko aukerea emoten dau era berean. "Zinema antzerkera ekarri gura genduan. Ez da generoaren parodia, baizik eta kode zinematografikoak dituan umorezko istorio bat". Sarrerak 8 eurotan izango dira, Lasarte Aretoko lagunentzat 6tan.

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

ZEBERIO

20:00etan, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

**URRI BIGARRENAK 26
IGORRE**

11:00etan, Igorreko Andra Mari eleizara bisita gidatua.

17:00etan, Eizu Kiñuk antolatuta, Slackline eta eskalada boulderrean.

LEMOA

Udalak antolatuta, Jubiladuen Eguna. 12:30ean, Mezea. 13:00etan, Durundi Barri Dantza Taldea. 14:15ean, bazkaria. 16:30ean, pelota partiduak. Izen emotea urri bigarrenaren 1etik 18ra.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta umeen urtekerea. Argalario (521 m).

UBIDE

10:00etan, Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunitadearen zeharkaldia. Ubideko plazan.

**URRI BIGARRENAK 27
AREATZA**

11:00etan Parkeak antolatuta perretxiko erakustaldia. Plazan.

ZEANURI

08:30ean, Arratia, Obxandio eta Ubideko XIV. Mendizale Eguna. Plazan.

**URRI BIGARRENAK 29
BEDIA**

17:00etan, tailerra: idazmahaiako gauzak antolatzeakoa, liburutegian.

**URRI BIGARRENAK 30
BEDIA**

17:00etan, tailerra: idazmahaiako gauzak antolatzeakoa, liburutegian.

**URRI BIGARRENAK 31
LEMOA**

Zemendiaren 3ra arte, Ganzabalek antolatutako urtekerea Peña Redonda (1993 m), Curavacas (2520 m), Peña Prieta (2536m), Lezna (2206m).

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

MODULO SALGAI

Moduloa saltzean da. 3 logela. Santillana del Mar kanpinean kokatuta. 16.000€. Telefonoa 606 772 896 (Mari Cruz).

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO SALTZEKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua,

kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 61 80.

DANERIK**DESBROZADOREA BEHAR DOGU**

Baten batek erabili barik badauka ipini kontaktuan mesedez. Bardin da zaharra bada. Eider: 685 70 71 76 orekaturte@gmail.com.

AREATZAN ETXEA ALOKAIUAN

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

INGELESEZKO ESKOLAK


Ingelesezko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ahora me ves...* filmarako.

Jose Antonio Barrenekxea (Igorre)
Jon Uruxturtu (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Far west* antzezlanerako.

Olatz Elejabarrieta (Lemoa)
Rosana Pedrosa (Areatza)



g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Txahal. Konsonantea.
- 2.- Otoitza bukatzerakoan. Berilioa.
- 3.- Burueria. Zilbor. 4.- Sala. Bokala. 5.- Harridura adierazoteko interjekzioa. Musika nota.
- 6.- Nitrogenoa. Hodei. 7.- Umea izan dauan andrea. Errusiako ibaia.
- 8.- Persona izenordaina. Nonbait.
- 9.- Bat erromatar. Probetxu.

GOITIK BEHERA

- 1.- Kopetakoa. Gura. 2.- Astiro. Musika nota. 3.- Auzia. Oxigenoa.
- 4.- Zintzo. Letra bat. Bokala. Indioaren sinboloa. 5.- Konsonantea. Andrazko izena. 6.- Pare. Zugatz.
- 7.- Oihala. Hanka.




Topau zazpi mineralen izenak.



AKI MI KO

Iman Olatu



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARDO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avenida Los Chopos, 35 (Nagarri) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Telefonoa: 94 673 64 35

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 fax: 609 206 717

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKETEGLA
GAY IS LORA
IGORRE

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 Beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Familia Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdia E-3 Pabeloa (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Telefonoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuzkoekin
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: urrozulu@euskalnet.net

ESKEAN KRISTÖ TALDEA

Eskean Kristö Arratiako taldeak EH Sona Lehiaketea irabazi dau

Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen duan EH Sona Lehiaketea Eskean Kristö Arratiako taldeak irabazi dau. Hogetahiru taldek hartu dabe parte lehiaketan, aurreko edizinoak halako bi. Estilo ugarietasuna izan da nagusi, danetarik entzun ahal izan da eta. "Gatxa izan da ebatzia hartzea, baina, Eskean Kristö taldearen indarrak, ondo tajututako musikeak eta kantuetako berba zorrotzak konbenzidu gaitue" dinoe antolatzaileak. Zemendiaren 23an, Bartzelonako Razzmatazz aretoan Gatibugaz batera egongo dira eta bertan euren zuzenekoak erakusteko aukerea edukiko dabe.

Ana Aldekoa eta Ane Amuriza

Orain dala urte batetik hona ze balantze egiten dozue?

Peio Artetxe: Orain dala urtebete gitarrista barik geratu ginan, lehen geunkana Londresera joan zalako. Gero Aritz Ontalvilla agertu zan eta martia inguruan maketea eta bi-deoklipa aurkeztu genduzan. Uste baino denpora gehiago pasau zan maketea publikau genduan arte, maketea publiketako ez gendualako diskografia batera jo. Maketea aurkeztu aurretik ni Vienara joan nintzan 3 hilabeterako eta Aimar Fernandezek ordezkatu ninduan denpora horretan. Taldekideak Gaztea Lehiaketara aurkeztu eben maketea, finalistak izatea lortu genduan eta azken barria eta guztietatik onena EH Sona irabazi dogula da.

Pello Artabe: Gitarrista joan zanean lauko formatoan jarraitutea pentsau genduan, baina talde gitarrero bat izanda ordura arteko indarra galduko ete genduan bildur ginan, beti, bai kontzertuak eta bai maketea bosteko formatoan egin doguzalako.

Alex Harillo: Taldeko gitarrista moduan lan gehiago izango litzateke niretzako. Gainera, urtean zehar kritika onak jaso doguz aldizkarietan eta horrek motibetan gaitu. Azken baten taldearen promozioa egiteko era bat da.

Maketea atera ondoren zer espero zenduen?

Peio A.: Ez genduan espero Gaztea Lehiaketan bigarren postua lortzea ezta EH Sonako lehiaketea irabaztea be. Beste talde on asko dagoz lehiaketetan eta guk maketea aurkeztu genduan subertea



izango genduan itxaropenagaz. Aitari neska bat hurreratu jakon lanera bostok sinatzeko CD bat emoten eta holango gauzak ilusinoz beteten zaitue eta guretzako gauzak ondo egiten gabizan seinale dira, jenteari behintzat gustetan jako egiten doguna.

A.H.: Espero baino maketa gehiago saldu doguz, batez be kontzertuetan. Kanpoan jotet dogunean be ikusten da jentea mobiduten dala.

Pello A.: Aurreko egunean balantze bat egiten ibili ginan ea maketa honegaz ezer lortu dogun ikusteko eta egia da Gaztean egon garala, baina ez dogu kontzertu askorik emon... maketeari behar beste etekin atera ez geuntsala pentsau genduan momentu batez, eta bat-batean EH Sona Lehiaketea irabazi genduala esan euskuenean, gauza horreek guztiak ahaztu genduzan eta azken barri honek behar genduan indarra emon deusku.

Zuentzako zerk dauka garrantzi handiagoa, Gazteako publikoaren botoak ala EH Sona epaimahaiaren botoak?

Peio A.: Oso desbardinak dira, baten aditu batek baloretan zaitu eta bestea norberaren gustuetan

oinarritzen da.

Pello A.: Lehiaketa baten epaileak parametro batzuen arabera, oinarri batzuk erabiliz ebaluau behar dabe talde bat, gustuetatik harago. Publikoak, barriz, eskubide guztia dauka talde bat berak gura dauan moduan ebaluetako, gustuen arabera.

Zelan hartu zenduen Bartzelonako Razzmatazz areto famaduan joteko aukerea?

A.H.: Nik Facebooken bidez jaso neban horren barri Materia Grisekoak zoriendu ginduzanean. Hasi era baten ez neban sinistu, EH Sonako webgunera sartu nintzan arte eta bertan ikusi neban arte. Jarraian taldeko whatsappean idatzi neban barria emoteko.

Peio A.: Perretxikotan nengoala mobila hartu neban eta whatsappean mezu asko neukazan bai taldekoenak eta bai lagun artekoenak zoriortzen, baina etxera joan arte eta EH Sonako arduradunagaz berba egin arte ez neutsen kasurik egin mezuai.

Zozer berezia prestatuko dozue Bartzelonarako?

Pello A.: Aa... batzarra egin behar dogu (barreak).

Peio A.: Sorpresaren bat egongo

da bai, Bartzelonako diskoteka famadu baten eta gainera Gatibugaz jotea ez da egunero gertatzen dan zerbaist. Beraz, derrigorrez zerbaist berezia egin behar izango dogu.

A.H.: Denpora izan ezker, gustauko litxakigu abesti barriaren bat idaztea bertan joteko baina oraindino ez dogu ezer prestatu.

Zeintzuk dira zuen etorkizunerrako planak?

A. H.: EH Sonako urten baino lehen izan gara abesti barriak prestatzen hasteko, baina hau urten eta gero, lehenengo honeri emongo deusagu lehentasuna eta gero hasiko gara gogor abesti barriakaz.

Peio A.: Bartzelonako kontzertuaren ondoren geldidune bat egingo dogu abesti barriak prestatuko.

BEGITU aldizkariaren bidez animau jentea Bartzelonara joaten!

Peio A.: Animau zaitzie! Oso ondo pasauko dogu eta sorpresaren bat be ikusi ahal izango dozue bertaratzen bazarie!

Pello A.: Ezta gura edo ez izatea, gauzea da behar dogula jentea joatea. Oso inportantea da guretzako jente ezaguna han gu animetan egotea eta horrek guri indarra emoten deusku. Behar zaituegu!

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxes. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.